



IBILBIDE ORRIA





1.- GONBIDAPENA **AMAITUTA**

Lehenengo urratsa da ekitaldi bat prestatzea, udal zein foru erakunde publikoekin harremanetan jartzeko.

Konpromisoan parte hartu duten udal guztien agintaldiko-planak osatzen dituzten ekimenak kargatzeko plataforma informatiko bat diseinatzen saiatuko gara.

2.- PILOTUAK **AMAITUTA**

Proiektua erakunde publikoen talde pilotu batekin hastea planteatu da. Bestiak beste, honako hauek proposatu dira: Zamudioko Udala, Laudioko Udala, Leioako Udala, Mungiako Udala, Erandioko Udala, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Irungo Udala, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

3.- EDUKIAREN GUTXIENEO AKORDIOA **AMAITUTA**

Agintaldiko-planen gutxieneko eduki komun bat jasoko da, bai eta plan horien jarraipena ere, parte hartuko duten erakunde publikoekin adostuta.

Gutxieneko edukiak honako hauek izango dira: konpromisoak, jarduerak, ekintzak, gauzatze-epeak, aurrekontuak...

Gainera, adierazle komun batzuk ezarriko dira, agintaldiko planen betetze maila kuantifikatu eta baloratu ahal izateko.

4. KARGA

APak egiteko ataria (beta) garatzea

TESTU EDITAGARRIA

WEB/HTML

GRAFIKOAK

5. ARGITALPENA (AUKERAKOA)

Udal / foru / gobernu webgunean PM txertatu.



6. JARRAIPEN METATUA (AUKERAKOA)

Jarraipena hastearekin batera, emaitzak hainbat mailatako webgune batean metatzea baloratzen da:

ARABA.EUS

BIZKAIA.EUS

GIPUZKOA.EUS

EUSKADI.EUS

4.- KARGA **AMAITUTA**

Hasieran, web-plataforma garatuko da, zenbait funtzioekin, hala nola: testu edizioa, grafikoen aurkezpena, ... erakunde bakoitzaren agintaldiko-planak kargatzeko.

5.- ARGITALPENA (AUKERAKOA) **AMAITUTA**

Erakunde bakoitzaren agintaldiko-planak jendaurrean noiz ireki erakunde bakoitzaren erabakia izango da, baita herritarrei datuak argitaratzeko unea ere.

6.- JARRAIPEN METATUA **HASITA**

Agintaldiko-planaren betetze-mailaren jarraipenak berekin dakar datuak maiztasun jakin batekin eguneratzea. Horrela, erakunde publiko bakoitzaren agintaldiko-planaren betetze-mailaren jarraipena egin ahal izango da. Hori da, egia esan, 1. konpromiso honen benetako helburua: kontuak ematea.

Era berean, eta erakunde bakoitzaren banakako jarraipenaz gain, kontuak emateko aplikazio informatikoa gai izango da parte hartzen duten erakunde guztien emaitzak baloratzeko hainbat mailatan, hala nola lurralde historikoaren arabera, konpromisoen arabera, ekintzen arabera eta bildutako datuen konparazioa ere egin ahal izango da. Horretan datza bildutako informazioaren sistematizazioa eta azterketa.

Horrela, bildutako datuak eta lortutako emaitzak herritarrei aurkeztuko zaizkie.

7. HERRITARREN AUDITORIA

Urteko gutxieneko auditoria-dinamika bat proposatuko da. Hortik abiatuta, erakunde bakoitzak talde eta herritar ez antolatuekiko harremana areagotzea erabakiko du

URTEKO BILERA
KOLEKTIBOekin (MULTI
STAKE-HOLDER FORUM)

JAKINTSUEN BATZORDEA /
KONTROL-TALDEA
(AKTIBOAGOAK EDO
KUALIFIKATUAGOAK)



HERRITARREN KONTU-
IKUSKARITZAREN
IRUZURREI BURUZKO
TXOSTENA + GRAFIKOAK

Agenda
Auditorretza C

- TXOSTENA SARE SOZIALETAN
- ENTZUNALDI PUBLIKOA
- OSOKO BILKURA / ATEAK ZABALIK
- IKUSIZKO TAULA: FISIKOA / WEBGUNEA

7.- HERRITARREN AUDITORETZA **HASITA**

Herritarren auditorretza kontuak emateko mekanismoa da. Horren bidez, herritarrak mobilizatu eta antolatu egiten dira, erakunde publikoen jarduna eta erabakiak ikuskatzeko. Ildo horretan, ikuskaritza arrakastatsua izan dadin beharrezkoa den informazioa emateko betebeharra dute erakundeek.

Herritarrek erakunde publikoen jardueren gainean gauzatzen duten kontrol-prozesu horri esker, erakundeen gobernantzarako sarbidea dago, gobernantza hori hobetu eta baloratu dadin. Erakundeentzat, egindako lanaren atzeraelikadura lortzeko eta gizartearekiko harreman modu bat sortzeko bidea da.

Laburbilduz, auditorretza soziala erakundeen jarduna hobetzen duen tresna parte-hartzailea da. Horregatik, 1. Konpromiso hau funtsezkoa da erakundeek herritarrekin lankidetzan jardun dezaten gai publikoetan.

Etapan honetan, urteroko bilerak aurreikusten dira, parte-hartze anitzeko foroen bitartez, bai eta kontrol-talde aktibo edo kualifikatuagoen bitartez ere. Jasotako ondorioen txostenak bidaliko dira.